



2010eko aurrekontuak Itundutako Irakaskuntzan: Aurretik sumatu ezin daitezkeen ondorioak

Dakizuen bezala, egun hauetan Legebiltzarrean EAE-ko 2010rako aurrekontuen egitasmoak eztabaidatzen ari dira. Ezagutzen dugun egitasmoa aurrera aterako dela aurreikus daiteke PSE eta PP-ren laguntza dutelako, PNV-en ez erasotzeko konpromisoarekin. Beste taldeen zuzenketak, beraz, banan bana ari dira atzera botatzen.

Itunpeko irakaskuntzak 620 milioi € jasoko ditu, aurrekontuaren % 22a. Gastu handiena hezkuntza-itunek eramango dute (557 milioi) ikastetxe pribatuen %99-ak bide honetatik jasotzen duelako diru publikoa, haien artean –legearen kontra badoa ere- neskak edo mutilak berezitatea eskolatzen dituztenak ere.

Hala eta guztiz 2009ko aurrekontuekin alderatuz kezkarriak dira kontzeptu askotan eman diren hainbat murrizketa. Arduratzekoa da 2010-2011 ikasturteari begira, ibilbide atzerakoa marrazten dutelako eta ondorioak alde batetik, itunpeko ikastetxeetan lan egiten dugunok jasango ditugulako eta bestetik ikastetxe hauetan eskolaratuak dauden ikasleak ere kalteturik aterako direlako.

Lan arloko ondorioen artean lanpostu galera egon daiteke, batez ere LHko zikloetako irakasleen artean, ezarritako irizpide batzuen ondorioz ratioen %20en murrizketa sartu dutelako. Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kasuan ere murrizketa garrantzitsu bat dute berauek kontratatzeko dauden diru-laguntzetan, horrek 2010-2011 ikasturteari begira ekar dezakeenarekin (kanporatzeak). Jarraitzen dugu pentsatzen behar bereziak ikasleek direla, esparru honetan egindako murrizketak onartezina direlarik.

Aurrekontuetan ez da islatzen homologazio laboralaren inguruan aurreko legealdian sinatutako akordioa. Irakasleak ez diren langileen soldatak izozteaz gain, diru gutxiago dago bai formaziorako, bai IRALako liberazioetarako, bai LH-etako ikastetxeen ekipamendurako...

Laburbilduz, aurrekontu kontinuitateak ditugu hauek eura aldetik ez baita inolaz ere nabaritzen gobernu berri batek eginak direla; baina oso murriztaileak itunpeko irakaskuntzarako ere. Aurrera egin beharrean, daukagunari eusteko borrokan aritzeko modukoak ditugu aurrekontuak.

Proiektuak sektorearen egonkortasuna galarazten du eta etorkizuna zalantzaz beteta utzi. Egoera honetan galdetu behar dugu non dagoen erakunde sindikal batetik Lakuara joandako batzuk aipatzen zuten mahai tripartitua. Non da gure lan baldintzen homologazioa?

Oharra:

Itsusia da oso bakarrik zurea ez den gauza bat bakarrik zurea bihurtu nahi izatea. Auzitegi Gorenaren 2009/10/15-eko sententziaz ari gara, jarripeneko sariaren inguruan. Eztabaidan sartu gabe oso argi esango dugu: CCOO-ek ez du ezer irabazi. *Kristau Eskolak* izan da galdu duena. Galdu zuen Bilbon hasieran aurkeztu zuen helegitea eta galdu berri du Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsua. Irabazi dutenak (ia inolako ondorio praktikorik gabe ELA-k eta UGT-ek hitzarmena sinatu zutenetik) sektoreko langileak izan dira. Bere eskubideak Auzitegian sindikatu guztietako abokatuek (STEE-EILAS-ekoak, beraz barne) defenditu zituzten, baita beranduago hitzarmena sinatu zutenenak ere. Garbi al dago?

ARABA: Eulogio Serdan, 5

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)

NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org



ITUNPEKO IRAKASKUNTZA PRIBATUA AURREKONTU-SAIL NAGUSIAK

	2009	2010	%
HEZKUNTZ ITUNAK	547.354.000	557.847.318	1,9
JUBILAZIOAK	2.143.000	2.143.000	0
0-3 ZIKLOKO FINANTZIAZIOA	31.334.700	31.728.333	1,2
HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK	8.904.413	6.651.162	-25,4
IRALE-ko ORDEZKAPENAK	5.446.000	3.616.144	-33,6
NORMALIZAZIOA	3.080.000	2.210.832	-28,2
LIBERATU SINDIKALAK	898.040	898.040	0
KRISIPEKO IKASTETXEAK	725.898	725.898	0
EKIPAMENDU INFORMATIKOA HH-LHn	416.000	1.300.000	312,5
EKIPAMENDU INFORMATIKOA BHn	832.000		
DIRU-LAGUNTZA OSAGARRIA(PVFP)		1.350.482	
FORMAZIO ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUAK	342.490	289.020	-34
FORMAZIOA		194.029	
OZTOPO ARKITEKTONIKOAK		500.000	
IKASLE ETORKINAK (HH-LH)	1.615.100	1.350.000	-16,5
ETORKINAK (BH)	1.615.100	1.395.000	-13,7
INBERTSIOAK KOOPERATIBATAN	2.974.479	2.974.479	0
EKIPAMENDUETARAKO DIRULAGUNTZA(PVFP)	3.178.990	1.376.000	-56
EKIPAMENDUA SAREAN EZ DAUDEN IKASTETXEETARAKO	559.500		
CONFEBASK	396.196	257.527	-35
LH-eko ARABAko KONTSORTZIOA	734.800	717.600	-2,3
HETEL	151.272	130.000	-14
FEVAS	66.500	10.556	-84
IKASLAN-GIPUZKOA	344.240	223.756	-34

HEZKUNTZ ITUNPEKO MODULUAK 2009-2010 (Igoera aurreko urtearekin aldentuta)

	EI		EP		ESO 1		ESO 2		BACHILLER.	
	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009
Irakasleak	5,2	3,9	5,17	3,9	4,69	3,7	4,41	3,8	4,38	3,8
Ez irakasleak	0	2,9	0	2,9	0	2,9	0	2,9	0	2,9
Ftua eta Mtua	0	2,9	0	2,9	0	19,9	0	20	0	19,9
RIR	0	3	0	2,9	0	3	0	3	0	3
Guztira	4,4	3,8	4,35	3,7	4,01	5,07	3,82	5,09	3,79	5,02

RIP: Reposición de Inversiones Reales

ARABA: Eulogio Serdan, 5**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)**NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ 944 10 13 60

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org